

ek!

eta kitto!
euskara elkarteak

2025eko irailak 12 · 1365 zenbakia

ARO BERRIA ESKOLA KIROLEAN

aek
euskara gaithe

Euskara eroso
ikasi eta bizi

**EIBARKO AEK
EUSKALTEGIA**

2025-2026 EUSKARA IKASTAROAK

MATRIKULA ZABALIK
irailaren 30era arte

Maila guztiak: A1, A2, B1, B2, C1, C2
C2 maila prestatzeko ikastaroa! Galdetu informazioa

DIRULAGUNTZA BERRIAK

C1 maila (16-18 urtekoentzat)
A1, A2 mailetan

Sostoa 1-1. solairua

943 20 13 79

eibar@aec.eus



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizenziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian,
Periodontizian, Implantologian,
Leongo Unibertsitatea.
Diplomaturak Aho Kirurgian,
Bartzelonako Unibertsitateak.
Hortz-Estetikaren Diplomaturak.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentseak.
Hortz-Estetikaren Diplomaturak.
Autran Institutua, Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioaren Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

Facebooken: Clínica Dental Irazabal **www.clinicairazabal.com**



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - **www.clinicairazabal.com**

Jarraitu gaitzazu!

www.etakitto.eus



@etakitto



Hezkuntza Ez Formaleko Eibarko Erain Elkartek zenbait urtetan prozesua garatu ondoren, Eskola Kirolak aro berria hasiko du ikasturte honetan. Kirol arloan aritzen den Athlon enpresak bideratuko du Eskola Kirola hemendik aurrera, Oihane Sarasketa eibartarraren eskutik, eta gogotsu daude datorrenarekin.

eta kitto!
euskara elkarteak



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA

Urkizu, 11 - 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

aldizkaria@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Irati Alvarez, Ekhi

Belar, Ander Fernandez, Silbia

Hernandez eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Ander Fernandez

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALA

Ekhi Belar

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



Eskutitzak



Txakur parkea zaindu dezagun

Arrateko errepeidean (Itzio ondoan) dagoen txakurren parkeko ohiko erabiltzaileak garen aldetik, ia egunero txakurrekin hara joaten garen pertsona askok partekatzen dugun kezka helarazi nahi dugu. Haienezako espazio bat egotea baloratzen dugu eta ingurune naturala pribilegiatua dela aitortzen dugu. Hala ere, eremuaren egungo baldintzak ez dira egokiak.

Parkeko lurra oso hondatuta dago, zulo askorekin, eta gero eta berdegune gutxiago dago. Hesiak ez dira behar bezala berrikusten, eta behin baino gehiagotan lortu dute txakurrek azpitik ihes egitea; horrek arriskua dakar haien eta inguruan dabilten segurtasunerako. Parkeko garbiketa ez da nahikoa, eta ur-iturria, nahiko hurbil egon arren, esparrutik kanpo dago, deserosoa da eta ez oso praktikoa.

Azpimarratu nahi dugu espazio hori ez duela Udalak bakarrik zaindu behar, erabiltzaileen ardura ere bada. Jabe bakoitzaren ardura da txakurren gorotzak jasotzea eta instalazioak ahalik eta baldintza onenetan egoten saiatzea. Horrela bakarrik gozatu ahal izango dugu leku duin, seguru eta osasungarri batez, bai animalientzat, bai haiekin gaudenontzat.

Lerro hauek instalazioak berrikusteko eta komunitate osoari mesede egingo dion hobekuntza bultzatzeko balioko dutelakoan gaude.

Txakurren parkeko erabiltzaileak

Kittonbolako opariak direla-eta

Arrate egunean ...eta kitto! Euskara Elkartea antolatutako tonbolan saria irabazi eta momentuan jaso ez zutenei jakinarazten zaie irailaren 19ra arteko epea dutela saria jasotzeko. Horretarako, euskara elkartearen egoitzatik pasatu beharko da (Urkizu 11, solairuartera). Argibide gehiagorako 943200918 telefonora deitu daiteke.

...eta kitto! Euskara Elkartea

Hortik esanak



Bilbon genozidioaren kontra txirrindularitza lasterketan egindako protesten ostean entzun nion bati baino gehiagori kirolak politikoki neutrala izan behar duela. Nik ez dakit zeri esaten dioten neutrala izatea, baina estatu bateko ereserkia entzutea ez da neutrala, eta horren ikurren bat daraman txandala eramatea ere ez. Neutraltasuna deserosotasun-erosotasun kontuarekin lotuta dago. Alegia, zerbaitek deseroso sentiarazten banau, orduan neutraltasuna hautsi dela ulertzen dugu. Eta jakina, gutxitan pentsatzen da norberaren neutraltasuna bestearentzat partzialtasuna izan litekeenik. Non neutraltasuna, han partzialtasuna. Boterea duenak ezartzen du neutraltasuna, eta beste denak abizena darama.

Goizalde Landabaso, kazetaria

Gasteizko euskalgintzak kristoren lana egiten du euskara biziberritzeko, nork bere esparrutik: guk euskaltegietatik euskalduntzen, beste batzuk arlo komunikatibo edo kulturean, aisialdiari bideratutako elkarreetan... Ekarpena zabala eta oparoa da. Hala ere, euskalgintzak bakarrik ezin die erantzun behar guztiei, ezinbestekoa da administrazioek ere ardura hartzea, eta elkarlana.

Josu Ramos, AEK

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PINTXAL → Pintzela, pintoreen tresna. “Zuloagatar Iñazoren pintxala, mundu guztian ezaguna”.

PINTXARI → Pintatzailea, pintorea. “Jaungoikuaren neurriko pintxari batek baleu letz”.

PINTXE → Tailerretako aprendiz. Artikuluarekin PÍNTXIA. “Bialdirak pintxia hónek kuliandak eruan deixazen”.



Idurre Iriondo

Farmaziak

BARIXAKUA 12
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
ZAPATUA 13
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
DOMEKA 14
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
ASTELEHENA 15
EGUNEZ Mendiñueta (Urkizu, 6)
MARTITZENA 16
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
EGUAZTENA 17
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
EGUENA 18
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
BARIXAKUA 19
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)

GAUEZ BETI, 2025ean,
Lekunberri (Isasi, 31)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Maria Teresa Herrero Herrero**. 2025-09-04.
- **Miguel Mendikute Zeberio**. 77 urte. 2025-09-05.
- **Eugenio Azpiri Gallastegi**. 93 urte. 2025-09-06.
- **Iker Aldalur Ruiz**. 23 urte. 2025-09-06.
- **Jose Ramon Lizarralde Retolaza**. 2025-09-09.
- **Jose Ignacio Arizmendiarieta Begoña**. 85 urte. 2025-09-09.
- **Jesus Berasaluze Aizpurua**. 88 urte. 2025-09-09.



Dentsitometroa ipini dute Eibar Ospitalean hezurretako gaitzak hobeto sendatzeko

Dentsitometro berria irailaren 16an hasiko da pazienteak artatzen, eta Debagoieneko eta Urola Garaiaiko pazienteak ere artatuko ditu. Debarreneko ESIko Eibarko Ospitaleak instalatu duen dentsitometroa funtsezko tresna da hezur-dentsitatearekin lotutako gaixotasunak, hala nola osteoporosia eta osteopenia, goiz detektatu eta ebaluatzeko. Azaldu dutenez, tresna berri honek hainbat patologiatan gorputz-osaeira aztertzen lagunduko du, “bereziki adineko pertsonen eta menopausia osteko emakumeen kasuan. Erradiazio-dosi oso txikiak erabiltzen ditu eta, pazienteentzako proze-

dura segurua eta azkarra da. Jon Iraola Eibarko alkateak bere poza adierazi du, “eskari historiko hau” errealitate egin delako. Osasun-agintariei abenduan bidalitako gutunean, urtero Debarrena ESIko 1.000 lagun inguruk horrelako proba behar izaten dutela azaldu zuen. Bere berbetan, “Gipuzkoako hiriburura joateak, pazienteentzat traba handia izateaz gain, itxaron-zerrenda handitzen zuen”. Alkateak, Osasun sailburuarekin egindako azken bileran egin zuen bezala, Eibarko Ospitalean mamografia-zerbitzua ezartzea eskatzen jarraituko duela esan du.

Eguaztenean itzuliko da aurretiazko borondatee buruzko informazio-zerbitzua

Debarreneko Esperientzia Eskolaren 19. promozioak iaz martxan jarri zuen Agurtzen zerbitzuak berriz helduko dio oporren aurretiko martxari eta, 17tik aurrera, hilean birritan (1. eta 3. eguaztenean) egongo dira Untzaga gizarte zentroan (Arrate gelan), 18:00etatik 20:00etara.

Agurtzen zerbitzuaren bitartez aurretiazko borondatearen inguruko informazioa ematen zaie eibartarrei, zalantzak argituz eta beharrezkoa den dokumentazioa betetzen lagunduz. Proiektuak babes eta jarraipen handia izan du orain arte.

SEPEren bulegoa itxeak milaka langabeturi eragingo diela dio LABek

LAB sindikatuak aste honetan salatu duenez, SEPE zerbitzuaren itxiera “publikoa dena abandonatzaren erakusgarria” da. Gertakaria salatzeke idatzi duen oharrean, sindikatuak azaldu du giza baliabide faltagatik itxi dutela SEPE, eta adierazi du langabeziagatik prestazioak eta enplegu-politikak kudeatzen dituen erakundea itxeak “zalantza larriak” sortzen dituela sistema publikoak herritarren eskubide sozialekin duen konpromisoari buruz. Sindikatu abertzaleak ohartarazi duenez, itxiera hau geroz eta gehiago zabaltzen ari den joeraren, hau da, “publikoa dena interes pribatuen alde poliki-poliki ezabatzearen” parte da. Era berean, aditzera eman du Eibar herri industria izanik, “bereziki kaltetua” izango dela.



Asteburu honetan hasiko dira elizkizunak ospatzen Azitaingo elizan

Domekan (14an) hasiko dira berriz ere elizkizunak (mezak, hiletak, baitaioak...) ospatzen Azitaingo elizan, udako etenaldia eta gero. Domekian eta jai egunetan izango dira, 10:30ean beti.



Irailerako mobilizazio bereziak deitu ditu Euskal Herriko Pentsionisten Mugimenduak

Pentsiodunen mugimenduak aste honetan heldu die kaleei hainbat tokitan, eta Eibarren irailaren 15ean hasiko dira astelehenetako kontzentrazioak, betiko moduan 12:00etan Untzagan. Izan ere, oportetarik bueltan jakin dute EAJk eta PSOEk osatutako Eusko Jaurlaritzak uko egin diola 145.000 sinadura baino gehiago bildu zituen Legegintzako Herri Ekimenari bide emateari, eta horren kontra protesta egiteko mobilizazioak iragarri dituzte.

Irailaren 18an (eguna), Gasteizko Legebiltzarrean oporren ondorengo lehen Osoko Bilkura (Politika orokorrari buruzko ezatabaida) egingo denez, elkarretaratzea deitu dute Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Pentsionistek. Eta irailaren 20an (zapatua) manifestazioak egingo dira lau hiriburuetan: Donostian 12:00etan Bulebarreko kioskoan; Gasteizen, 10:00etan Artiumen; Bilbon, 18:00etan Jesusen Bihotzean; eta Iruñean ordua zehazteke dago.

AUTUAN

1074 ZENBAKIAK IRABAZI DU ARRATEKO JAIETAN ZOZKETATUTAKO SARIA

Arraten txosnetan saldutako errifaren zozketa egin dute, eta 1074 zenbakiari egokitu zaio saria: bi lagunentzat bazkaria Tiro Pitxon jabetxean. Irabazleak hamabost eguneko epea dauka, gaurtik bertatik hasita, antolatzaileekin kontaktuan ipini, eta sari bila joateko. Bestela, ordezeko zenbakiarentzat (1227) izango da.



1955. URTEKOEN JAIRAKO IZEN-EMATEA ZABALIK

Urte horretan jaiotakoek urriaren 4an ospatuko dute beraien eguna eta, bertaratzeko interesa duten guztiek 90 euro sartu beharko dituzte Kutzako kontu korrante honetan: 2095 5035 0091 2579 5836. Irailaren 25a izango da izena emateko azken eguna. Informazio gehiagorako martxan ipini duten WhatsApp taldean begiratu.

B ERBETAN JAIA

Irailak 23
martitzena
Untzagan
17:30-19:00

**DISKO ARIMA
MUSIKA FESTA**

eta kitto!
euskal herriko





Gerra Frontearen inguruko bisita gidatuak hilean behin eskainiko dituzte

Gerrako Fronteko bisita gidatuen beste saio bat egingo da domekan, irailaren 14an. Besteetan bezala, mendi ibilbidea izango da, eta parte hartzeko izena eman dutenekin 10:00etan abiatuko dira Arrateko Gerra Zibileko Interpretazio Zentrotik. Irteera 14:00ak aldera amaituko da eta oraingoan gazteleraz egingo dute bisita gidatua. Udako oporren aurretik hasi ziren horrelako bisitak eskaintzen eta, orain arteko harrera ona izan dela ikusita, hilean behin egingo da bisita hemendik aurrera.



Mugikortasun Jasangarriaren Europako Astearekin bat egingo du Eibarrek

Eibarko Udalak, Ingurumen Sailaren bidez, Mugikortasunaren Europako Astearekin bat egingo du aurtien ere. Europako Batzordeak 2025eko kanpainarako aukeratu duen lema “Mugikortasuna guztiontzat” da eta, horren harira, bigarren eskuko bizikleten azoka eta beste zenbait jardura antolatu ditu Udalak datozen egunetarako. Ildo horretan, Mugikortasuneko, Turismo eta Lurralde Antolaketako Departamentua *Jarri zure bizikle-*

ta prest MUGIrekin ekimenarekin etorriko da gurer astelehenean. Debabarrenan hasi eta Gipuzkoako eskualde guztietako hogeitabat udalerriz zeharkatuko ditu ekintzak, eta Eibarren 10:30etik 14:00etara egongo dira, Untzagan.

Bizikleten bigarren eskuko azoka irailaren 20an egingo da, Untzagan, eta parte hartzeko aurretik izena eman behar da, nahitaez (www.merkabi.eus/eibar helbidean edo 943 67 02 49 telefonora deituta).



Elikadura eta ostalaritza establezimenduei zuzendutako bonu kanpaina berria abian

Eibarko Udalak erosketa-bonuen kanpaina abiatu du astelehenean, elikadura eta ostalaritza sektorei zuzendua. Eibar Merkataritza Gune Irekiaren bulegoa arduratuko da koordinazio eta kudeaketan. Parte hartu nahi duten establezimenduek atxikimendu-agiri bat sinatu, eta posta elektronikoki bidez egin beharko dute (info@eibarcentrocomercialabierto.com).

Zuzenean ere entregatu daiteke, EMGI elkarteak Untzaga 7, 3. behean dituen bulegoetan (gaur da azken eguna). Bete beharreko agiria Interneten eskuratu daiteke, www.eibar.eus eta www.erosieibarren.eus webguneetan. Edozein zalantza argitzeko, 943 25 40 83 telefono zenbakira deitu edo info@eibarcentrocomercialabierto.com helbide elektronikora idatzi.



Urriaren 9ra arte aurkeztu daitezke 35. Toribio Echevarria sarietarako enpresa-proiektuen hautagaitzak

Jon Iraola alkateak, BIC Gipuzkoako proiektuen zuzendari Laura Espinek eta Ekonomia-Garapen, Enplegu eta Berrikuntzako zinegotzi Vanesa Hortasek sari garrantzitsu hauen edizio berri bat aurkeztu zuten atzo, eta Euskal Autonomia Erkidegoko startupek eta izaera zientifiko-teknologiko nabarmena duten enpresa-proiektuek dagoeneko hautagaitzak aurkeztu ditzakete.

Eibarko Udalak eta BIC Gipuzkoak bultzatutako Toribio Echevarria sariaren 35. edizioan sariaren oinarriak birformulatu, eta zenbait berrikuntza gehitu dituzte, "euskal ekintzailetzaren eta enpresa-sa-

rearen errealitatera eta beharretara egokitzeko". Eibarko Udalak handitu egin du sariaren dotazio ekonomikoa (12.000 euro), eta hiru sari banatuko dira, hau da, bat kategorია bakoitzeko (Startupak eta enpresa-proiektuak; Enpresa berritzailea, aurreko edizioetako nazioartekotze-saria jasotzen duen saria; eta Eibarko Enpresa "Made in Eibar", Eibarko Udalak ematen duen sari berezia).

Hautagaitzak aurkezteko epea urriaren 9an amaituko da, eta oinarriak eta baldintza guztiak sariaren webgunean, www.toribioechevarria.com helbidean kontsultatu daitezke.

Domekarako mobilizazioa deitu du Ernaik Donostian

Juan Paredes *Txiki* eta Angel Otaegiren fusilamentutik 50 urte beteko dira aurrean eta, efemeride biribilaren errelatutik, Ernai gazte antolakundeak udarako kanpaina antolatu du. Adierazi dutenez, "50 urte hauetan Euskal Herriaren askatasunaren alde borroka egin duten belaunaldiak aitortza egin, eta egungo gazte belaunaldiak, Euskal Herria askatasunera eramateko indarrak batu eta bultzatzea egin behar dute". Udan zehar herrietako jaien inguruan ekintza ezberdinak burutu dituzte, eta domekan emango diote itxiera kanpainari, Donostian, estropaden testuinguruan. Mobilizazioa, "Ekin eta bultzatzea, askatasunera" lemapean deitu dute, eta gazteak mobilizatzera deitu dituzte.





estrolara buelta?
elite

ISASI kalea, 29

BEHAR DUZUN GUZTIA / MARKA ONENAK
KALITATE ETA ZERBITZU BIKAINENA

Eskola-materiala,
papertegia, motxilak,
idazmahaiak, aulkiak...

EQUIPAMIENTO DE OFICINAS 943-200030 elite@eliteoficinas.es www.eliteoficinas.es



Ezkontza batean Kubara joateko eskaintza egin eta, ia pentsatu barik, hara joan zen. Tropicana ospetsuan aritu zen, besteak beste.

Erromeriak Maltzagan, Trabakuan... Orduko soinu-jole onenak.

Erromeriak Maltzagan eta Trabakuan; soinu-joleak

Miguel Sagastume Narbaiza *Urkiko Magoa* (1931 – 2021)



Urkiko baserri bateko semea. Aitak trikitia jotzen zuen eta Miguel gazte-gazterik hasi zen soinu jotzen. Solfeo, piano eta filarmonika ikasketak ere egin zituen. Bergarara joan zen ikastera. "Mago de Urki" gaitzitzenaz ere ezaguna, zenbait txapelketatan parte hartu zuen. Benetako aukera ezkontza batean etorri zitzaion, Kubara joateko eskaintza egin ziotenean. Bertara joan zen, amarekin batera. "Tropicana"-n jotzen jardun zuen, baina ama gaixotu eta Eibarrera itzuli ziren. Bolera amerikanoa martxan ipini zenean Eibarren, Miguel kontratatu zuten.

Miguel Sagastumeri grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

[Hori galdetu nahi nizun. Ze hasieran ez dut alferrik esan infernuko hauspoa] Hauspua, bai. Orduan... [Erromeri, boda... Hori danetara aillegatuko zen noizbait] Bai, bai, bai, bai. Eske orduan egitten ziran erromerixak Maltzagan, Usarsan, Eibarren... Bueno, danian egitten ziran erromerixak, baiña erromerixak, e? Bai, ba, ez zeguan orduan saloirik eta ezer be. Bandia zerian, plazan... Bai, Unzagako plazan bandia egoten zan bedratzirak arte. "Se acabó". Seiretatik edo egoten zan bandia eta bestietan erromerixia. Basarriko jentia ez zekan ohitturarik... [... plazara jaisteko] Ez ba! Orduan abarkekin eta nora juango ziran erromerixara! Orduko gazterixia haixe. Eta han ibiltzen giñan. Gero bazegozen hamen erromerixak. Orduan kategorixak egoten ziran. Por ejemplo, zeguan... Ermutik Markiñara bittartian, zelan da? Trabakua! Trabakuara eruaten zittuen erromerixak (...).

“Askoren ustearen kontra, udal liburutegia ez da ikasteko toki bat bakarrik”

EVA ALBERDI • Eibarko Juan San Martin Udal Liburutegiko arduraduna



Hiru hamarkada daramatza Eva Alberdik Eibarko udal liburutegian lanean. Askoren ustearen kontra, irakurzaletasunak bizirik dirauela dio eta mailegutza kopurua dela horren erakusle. Aurrera begira programazio zabala antolatu dute, eta herritarrek liburutegiak dituen eskaintzaz jabetu behar direla uste du.

Eibarko Juan San Martin Udal Liburutegian lan egitea "ohorea" dela dio Eva Alberdi liburutegiaren egungo arduradunak. 33 urte inguru daramatza liburutegian lanean, Untzagan zegoen liburutegian lehenik, eta Portalean gero. Ordezkapenak egiten hasi zen eta, behin oposaketak gaindituta, plaza ateratzea lortu zuen. Ordutik, denetariko karguak izan ditu: herritarrei arreta emanez, liburutegi osoa katalogatzen... Gaur egun liburutegiko lantaldea osatzen duten zazpi lagunen artean arduraduna da. “Guztion artean zerbitzua eusten eta kalitatea bermatzen saiatzen gara”.

Zenbat gune daude guztira liburutegian?

Hasteko, helduenean irakurketa gela dago (gela handiena dena). Bertan, albo batean, Eibarko bildumaren liburuak dituen gela txiki bat dugu. Beste aldean, 'hemeroteka gunea' deitzen diogun gunea daukagu (egunkariak irakurtzeko edo butaka batzuk irakurtzen egoteko). Gero, umeen liburutegian 'Txiki txokoa', bestelako irakurketa gela bat eta ikasgela daukagu. Liburutegiko gunez gain, Portaleko beste gune batzuk erabiltzen ditugu. Lehenengo solairuan dauden batzartokiak, adibidez, edo hirugarren solairuan dagoen ikastaro gela, areto nagusia. Liburutegia ez ixteko erabiltzen dira espazio horiek. Finean, ez baita egokia irakurketa klub bat

egitea jendea ikasten dagoen bitartean. Liburutegia ez da nire ustez ikasteko toki bat bakarrik. Ikasleek hori ulertu behar dute. Izan ere, noizbait izan ditugu desadostasunak horrekin. Liburutegi hau udal liburutegi publiko bat da, adin guztietako jendearentzat zuzenduta dagoena. Ez da unibertsitateko liburutegi bat. Hori garbi izan behar da, batzuetan kexak jaso baititugu. Zarata ateratzen dugula diote kexatzen direnek. Esaterako, pertsona bat aholku eske etorri denean hitz egin dugunean isiltzeko eskatu digute. Guk gure lana egin behar dugu, eta horrek molestatzeko bazaitu, agian, ez da zure tokia.

Programazioari dagokionez, zer antolatu duzue ikasturte honetarako?

Hain justu irailaren 1ean zabaldu ziren aurrematrikula epeak helduentzako bi irakurketa klubentzat (euskarazko eta gaztelaniazko klubentzat). Biak eibartarra den Ainhoa Aldazabal eibartarrak dinamizatuko ditu. Parte-hartzaileek urritik maiatzera bitarte liburu bat irakurriko dute hilero eta idazlearekin saio bat egingo dute ideiak partekatzeko. Euskarazko irakurketa kluba...eta kitto! euskara elkarlearekin batera egiten dugu. Gainera, liburuak doan lortzen ditugu, beste liburutegiekin dugun elkarlanari esker. Hori bai, irakurleek beren kabuz erosi eta idazlearen sinadura bat lortzeko aukera ere badute.



Eva Alberdik hiru hamarkada egin ditu liburutegian lanean. IRATIALVAREZ

Urte luzez egin da irakurketa kluba. Nolako “feed-back”-a jaso duzue?

Maileguaren datuen arabera egia da euskaraz gazte-leraz baino gutxiago irakurtzen dela. Hala ere, nik uste dut euskaraz irakurtzen duenarentzat ere oso aukera ona dela, bestela ez baita oso erraza izaten idazlearekin egon eta liburua komentatzea. Webgunean dago saioen inguruko informazio guztia, informazioa nahi izanez gero.

Esan ohi da gaur egun jendeak ez duela irakurtzen. Ados zaude iritzi horrekin?

Ez. Eibarko liburutegian behintzat, urteko mailegu kopuruari eusten diogu. Iaz, gainera, aurreko urteekin alderatuta, kopurua igo egin zen. Kopuruari eustea guretzat nahikoa da. Helburua nahiko beteta dugu, beraz. Egia da gure ohiturak aldatu direla. Film edo telesailen ikusle igoerak eragina izan du irakurzaletasunean. Eta era berean, diskoak oso gutxi hartzen dira mailegutzan. Bestalde, liburuen maileguari eutsi egin zaio. Datuen arabera, argi dago nerabezaroan “paroi” moduko bat egoten dela. Wifia eta ikasteko tokia besterik ez dute nahi izaten gazteek liburutegian. Heldutasunean liburuak mailegatzan dituzte berriro ere.

“Datuen arabera, nerabezaroan irakurzaletasunean ‘paroi’ moduko bat egoten da. Heldutasunean itzultzen dira liburuak mailegatzera”

Belaunaldi batekin edo bizitzako etapa batekin lotuko zenuke fenomeno hau?

Ez dakit esaten. Agian gaur egun liburuak beste modu batetik eskuratzen dituzte. Esango nuke nerabeei ez zaiela digitalean irakurtzea gustatzen, nahiago dutela paperean irakurri (gure iruditerian kontrakoa bada ere). Gaur egun, gainera, kontuan hartzekoa da irakurzaletasuna zailtzen duten beste faktore batzuk badaudela balantzan: sare sozialak, telesail eta film plataformak, adibidez.

Liburutegiaren erronka nagusia irakurzaletasunari eutsi eta bultzatzea da orduan.

Horretan saiatzen gara. Haurrak urtebete dituzten momentutik eskaintzen ditugu irakurketa klubak.

Irakurketa deitzea ere ez dakit zuzena ote den (barrak), gurasoek irakurtzen diete haurrei. Azken finean, literaturarekin lehenengo kontaktua eskaintzen dugu. Lehenengo urteetan ahozko irakurketa dena (poemak eta hitz jolasak egiten dituzte gehienbat), ondoren irakurketa sustatu eta etxerako maileguan hartu ditzaten. Sei talde ditugu gaur egun: urte batetik hiru urtetara eta lau urtetik sei urtetara (hiru talde, adin tarte bakoitzeko).

Eskolei begirako eskaintza ere badugu: “Mintzoan kux-kux”. ‘Galtzagorri’ elkarteak antolatzen duen programa da. Adituek aukeratutako liburuak liburutegiko txoko batean jarri eta haur bat etortzen da bila. Ostean, eskolara eta etxera eramaten du liburua. Eta, azkenik, beste ume batek liburua liburutegira itzultzen du eta beste liburu bat hartu. Eskola, familia eta liburutegien artean euskarazko literatura ona, kalitatezkoa, bultzatzeko modu bat da.

Eta azkenik, zortzi urtetatik DBHra bitarte, ‘Paperezko hegoak’ deituriko bi irakurketa talde ditugu. Peru Magdalenak dinamizatzen ditu saio horiek. Umeek hilean liburu bat irakurri eta saio bat egiten dute batzartokian. Liburuaz hitz egiteaz gain, gaiarekin zerikusia duen lan bat egin behar dute parte-hartzaileek (marrazki bat, idatzi bat...). Ikasturte amaieran, lan guztiak batu eta liburuxka bat ematen zaie opari gisa.

Bestelako jarduerarik baduzue?

Ingelesa eta frantsesezko mintzapraktika programa aurrera atera nahian gabilta. Dinamizatzaile bila gauden orain. Ez da hain erraza dinamizatzailea topatzea. Aurrera begira, urriaren liburu aurkezpen bat dugu, eta urriaren 24a Liburutegien Eguna izanik, Gabriel Arestiren heriotzaren 50. urteurrenarekin loturik antzezlan bat egingo da (‘Gabriel Arestirekin Ikus-kizuna’), Kandido Uranga eta Inaxio Tolosaren antzezleek eskutik.

Herritarrek ba al dakite benetan zein eskaintza dagoen liburutegian?

Nik uste dut ezetz. Saiatzen gara, sareetan esaterako, dena argitaratzen, baina ez gara dena zabaltzera hel-



“Liburutegia ikasteko eta isilik egoteko tokia dela uste da oraindik ere. Ondorioz, askok uste dute liburutegia ez dela haientzako tokia”

tzen. Liburutegia ikasteko eta isilik egoteko tokia den iritzi orokortua dago oraindik ere. Ondorioz, askok uste dute ez dela haientzako tokia. Jendea jubilatzen denean hasten da etortzen eta orduan konturatzen dira dugun eskaintzaz. Hori aldatu beharra dago.

Azkenik, liburutegian hainbeste urtez lan egin ostean, zein liburu gomendatuko zenuke?

Liburu oso laburrak irakurtzen ditut, ohera joan aurretik. Orain euskaraturik dagoen ‘El infinito en un junco’ (Irene Vallejo) liburua irakurtzen nabil. Liburuzain batek irakurri beharko lukeen liburua dela esango nuke. Euskaraz, ‘Maitasun kapitala’ (Karmele Jaio) asko gustatu zitzaidan. Klubean irakurriko duten ‘Betty’ (Tiffany McDaniel) ere asko gustatu zitzaidan.

Hego Korea eta Legarre musikak batuta

Elbarren elkartuko dira printzipioz zerikusi handirik ez duten k-popa eta rock-punk eta antzeko doinuak. Izan ere, bi jaialdi izango ditugu bihar herrian, Mika Fest eta EMGE Fest, oso proposamen ezberdinekin, baina herriko kultur eskaintza aberasten dutenak. Lehena Errebalen egingo da, 16:00etatik aurrera, eta bigarrena Legarren, 18:00etan hasita. Adi, ea hurrengo urteetan Legarreko saioan ez den k-popa egiten duen talderik egongo.



Mika Fest-ek Hego Koreako kultura ekarriko du Eibarrera beste behin. Azken urteotan asko zabaldu dira gure artean hango musikak, janzkerak eta beste hainbat ohitura, gero eta arrakasta gehiago dute Koreako artistek eta hemengo zaleak zoratzeko moduan jartzen dira eurekin hartu-emanak edukitzean dutenean.

Eibarko zaleek bihar eta etzi izango dute Hego Koreako kulturara hurbiltzeko aukera, Alxshow-k eta Eibarko Udalak antolatuta egitarau zabala prestatu dute-eta. Alde batetik, bihar “arratsalde magikoa” biziko dugu antolatzaileen berbetan. 16:00etan, Hwang Sooyeon Dreamcatcher taldearen koreografoa eta performance managerra Coliseo antzokian eta Errebal plazan egingo den Mikover lehiaketako (k-pop abestien bertsioen lehiaketa) epaimahaikide gisa egongo da Akira, Sandra, Leire eta Kororekin batera. Mikover ikusteko sarrera doakoa izango da eta, ondoren, jaialdia egongo da musikarekin, dantzekin eta Asiako janariekin.

Zapatukoaren ondoren, domekan workshop-a egongo da Hwang Sooyeonon eskutik, 10:30ean, Ipurua kiroldegian. “Hasiberrientzako eta tarteko mailetarako egokia da tailerra”, antolatzaileen berbetan. Bertan parte hartzeko 35 euro ordaindu beharko da (5 euroko deskontua Eibarko Dantza Eskolako ikasleentzat) eta, saioa amaitu ondoren, Hwang Sooyeonekin argazkiak egiteko aukera egongo da.



Estilo anitzeko musikariak zuzenean entzuteko aukera izango dugu asteburuan.

Mika Fest Coliseon eta Errebalen egingo da; EMGE Fest Legarren izango da

Eibarko talentua

Hego Korea joan barik, herrian ere baditugu talentu handiko musikariak. Horietako asko, gainera, Legarreko musika lokaletatik irten dira edo han jarraitzen dute, Walter Tuzzeo sormen zentroan, gauza ederrak sortzen.

Legarren egiten denaren erakusgarri izan ohi da EMGE (Eibarko Musikari Gazteen Elkartea) festa eta aurtengo saioa bihar eskainiko dute, Legarren bertan (lokalen gaineko parkean), 18:00etatik aurrera.

Aurtengo edizioan lau talde igoko dira Legarreko eszenatokira: Kvalvika (musika elektronikoa, Eibar), Haram (punka, Bergara), Rythmachin (funka eta fusioa, Eibar) eta Sombras del Mal (trash metala, Eibar).

Taldeetako batzuk ezagunak dira herriko publikoarentzat (Kvalvika eta Sombras del Mal, kasu) eta besteak ezagutzeko aukera izango dute askok (orain dela gutxi sortu, baina martxa betean dabilen Rythmachin, kasu).

Kvalvikak sare sozialen bitartez aipatu du, bere azken kontzertuarekin alderatuz, bakarrik igoko dela eszenatokira.

Udalak adierazi duenez, "Eibarko Musika Gazte Elkarteko taldeak, jada sormen-ibilbide luzekoak, kalera irtengo dira, ikusleok giro berezian sentiarazi eta dantzan jartzeko, hainbat musika estilorekin".

EMGE-ren kontzertuak ikusteko ez da sarrerarik ordaindu behar izango.



“Ilusio handiarekin abiatu genuen Arrateko dantzen tradizio eraberritua”

OIER ARAOLAZA, MIREN HAZAS ETA JOSU GARATE • *Kezka Dantza Taldea*



20 urte dira Arrateko jaietan dantzaren inguruko tradizioa eraberritu zenetik. Dantza ohitura berria dela badirudi ere, XVIII. mendeko grabatu batean Arrateko jaietan dantza ere badagoea ikus daiteke. Jaietako tradizioaz eta eraberritzeaz hitz egin dugu Kezka Dantza taldeko kideekin. Aurrera begira, belaunaldi berriak ohiturarekin jarraitzeko gogoz daudela diote. Elkarrizketa osoa etakitto.eus webgunean dago ikusgai.

ELKARRIZKETA
BIDEOAN



Kezka Dantza Taldeak 2005eko irailaren 8an plazaratu zituen Arrateko Amaren dantzak formatu berri batean. Aurten, 21. aldiz dantzatu dira moldaketa horien ondorioz sendotu diren ezpata-dantzak eta trokeo-dantzak. Dantza taldeko kideak dira Oier Araolaza, Miren Hazas eta Josu Garate. Tradizio berriaren hastapenetan izan ziren Araolaza eta Garate. Miren atzetik etorri zen.

Nola aurkeztuko zenioke Arrateko dantzen tradizioa ezer ez dakienari?

J.G.: Oier da egun horren ekintzaile edo xaxatzailea hemen. Badago dantza eta egun honi dagokion iragan bat. Momentu batean, baten batek erabaki zuen dantza horiei buelta bat ematea orain dela 20 urte.

O.A: Kontuan hartu behar dugu Arraten festa, erromeria eta dantzen historia oso luzea dela. Daukagun dokumentazio eta testigantza zerrendaren artean, adibidez, badago grabatu bat XVIII. mendekoa. Bertan Arrate azaltzen da festa egun batean eta dantza dago. Ezagutu izan dugun ibilbide horretan jakin dugu hain-

bat eratako dantzak egin izan direla Arraten. Eta aurrerago, XX. mendean zehar ere egon zirela ahalegin batzuk dantza bat espreski Arraterako prestatzeko eta sustraitzeko. Baina ez zuten lortu lehenengo aha- leginetan errotzea, eta, orduan, XX. mendean zehar errepertorioak aldatzen joan ziren (nahiz eta askotan hainbat ezpata-dantza moldetarako joera egon). Orduan, 2005. urtean ordura arteko ezpata-dantzaren zati bati (ordura arte Josuk dantzari bakar gisa dantzatu izan zuena) falta zitzaion dantzaren gainontzeko parte osatu genion. Garai haietan ezpata-dantza hori ezpata txikiekin egiten zen bakarrik. Ordura arte dantzaten genuena ezpata-dantza zabalago baten parte bat zen eta horren ezaugarri nagusia ezpata luzeekin egiten diren mugimenduak, jokoak, zubiak, parrilak, arrosak... dira. Hori da 2005. urtean berrosatu eta festaren eta erritual baten baitan sartu genuena. Azkenean, Arrate sinbolikoki oso garrantzi handiko espazio eta festa ingurunea da denontzat eta baita garai batean inguruko askorentzat ere. Ez dio Eibarri bakarrik eragiten, baizik eta eskualde osoari. Arrateren



esanahi edo oihartzun horrek ia-ia Arrate irratiaren uhinak beste zabaldu eta barne hartzen du. Inguruko jendea betidanik etorri izan da Arratera. Orduan, ikuspegi horrekin saiatu ginen berrosatzen ezpata-dantza eta ezpaten erritua bera.

M.H.: Josuk dantza egin aurretik, beste dantza talde batzuk egiten zuten dantza, ezta?

O.A.: Bai. Arraterako dantza erreperatorio zehatza egiterako ahalegin horretan kanpoko dantzariak ere ekarri izan ziren. Eibarko taldeak izan dira askotan, baina, esaterako, 60. hamarkadan Galdakaoko Andra Mari dantza taldea ekarri izan zen pare bat urtetan dantzatu zezan... Bazegoen inguru zabaleko lotura hori. Ez bakarrik Eibarri, baizik eta inguru zabal baten lotura hori.

Nolakoa izan zen Juan Antonio Urbeltz eta Donostia-ko Argia dantzari taldearekin batera dantzak sortzea?

O.A.: Urte askotako prozesua izan zen. Urbeltz 1992-93 urteen inguruan ezagutu genuen. Garai haietan Elgoibarko Haritz Dantzari Taldearekin aritzen ginen lanean eta haien bitartez ezagutu genuen Urbeltz. Urbeltzen dantza taldeak (Argiak) sortzen zituen ikuskizunetan

parte hartzen hasi ginen. 1994an Urbeltz gure herrira ekarri genuen soka-dantzaren inguruko hitzaldi bat emateko asmoz. Hitzaldi horren bukaeran bertan, pista eta proposamen batzuk eman zizkigun, gerotara Arraten integratu ditugunak. Adibidez, dantzarien kofradiaren eratzea, horretarako kofrearen beharra, bakarlarien papera txandakatzen joatea eta horrek nola lagundu zezakeen taldea osatzen... Ezpata-dantzari dagokionez, Urbeltzek zuzendutako Argiak egindako lan hori guztia barneratzeko aukera izan genuen.

Urbeltz dantzari, irakasle eta ikerlari garrantzitsua da Euskal Herri osoan.

O.A.: Juan Antonio Urbeltz izan da (eta da) euskal kulturaren eta euskal dantzaren pertsonalitate oso garrantzitsua. Askotan Jorge Oteizarekin lotzen da bere ibilbidea, hark bezala euskal kulturari ikaragarritzko astindua eman diolako, euskal kulturaren bigarren berpizkunde horretan eragin duelako. Dantzari dagokionez, garai haietan nabarmenena Argia dantzari taldea izan zen, eta Urbeltz da begirada edo figura nagusia. Guretzat ikaragarritzko zortea eta plazerra izan



“Harilkatu behar ziren gauza asko zeuden. Denborak esango zigun funtzionatuko zuen edo ez”

“Sozialki, kofradia eta akta jasotzea aurrera begirako konpromisoa eta ardura hartzeko modua da”

da urte hauetan guztietan berarekin lan egin, ikasi eta dantzatzeko aukera izatea.

Elkarlan honi esker, zer-nolako dantza edo pausoak gehitu zenituzten erreperitorioan?

M.H.: Ezpata-dantzarekin loturiko guztia. Formazioa, arropak... eta, dantzari lotuta, Gipuzkoako eta Bizkaiko dantzen kutsua.

J.G.: Eredu edo ardatza Gipuzkoako ezpata-dantza izan zen. Hain zuzen ere, Argia taldeak berak desagertua zen lau lerrotako ezpata-dantza berreskuratu eta berpiztu zuen. Guk oinarrian duen lerro eta jantzien eredu hori hartu genuen. Azkenean, ingurura begiratu besterik ez genuen egin: Euskal Herriko muga haue-
tan zer izan dugun eta zer dugun.

Nola oroitzen dituzue hastapenak?

M.H.: Ni ez nengoen (barreak).

J.G.: Ez dakit oroitzapen handirik dudan, egia esan. Nora gindoazen ez genekien argi. Ez eta nola funtzionatuko zuen ere. Gogoan dut batzuek lan itzela egin zutela. Arropekin, adibidez hainbeste dantzari jantzi beharra, nola...). Bat batean hainbat lagun aktibatu eta lanean jarri ginen: dantza forma berriak ikasi, erreperitorioa osatzen joan, eguna nola antolatu, protokoloa edo erritu berri horri nola forma eman... Zailantzak izan genituen, dena nola sartu (meza dago)... Harilkatu behar ziren gauza asko zeuden. Denborak esango zigun funtzionatuko zuen edo ez.

Erritu horren parte da dantzarien akta sinaketa eta bazkaria. Noren ideia izan zen hori?

O.A.: Hori Urbeltzek iradoki zigun kofradiaren parte da. Urbeltzek esaten zigun (hitzaren jatorria begiratzuz) Kofradia bat kofre bat duen elkarte bat dela. Kofrearen barruan biltzen dira Kofradiaren paperak, dokumentuak edota tresnak. Eta, beraz, kofre bat behar genuela esaten zuen Urbeltzek. Hala ere, urte batzuk behar izan genituen kofre egokia lortzeko (barreak). Gaur egun gure dantzarien tresnetako batzuk (ezpata txikiak edota zapiak) gordetzen dira. Akta liburua da garrantzitsua. Urtero bazkaria egin ondoren, Enrique Izaguirre idazkariak idazten du bertan.

Sozialki, urtero dantza egin ondoren bazkaldu, akta jaso, guztiok sinatu eta bertan ere hurrengo urteetarako konpromiso hori hartzea da, azken finean. Aurretik ere errituarekiko konpromisoa eta ardurak hartzeko modu bat zen. Nik uste dut hori guztia ilusio handiarekin abiatu genuela.

KITTONBOLIA



Eibartarren babesak ez du parekorik!

Are gehiago aurten Arrate egunean egin zuen eguraldia kontuan hartzen badugu. Azken urteeotako eguraldirik desatseginenetakorekin argitu zuen egunak, lanbroa, zirimiria, giroa fresko... Hala ere, goizeko hamarretan puntuan zabaldu zituen ateak Kittonboliak eta, eguraldi eskasari aurre eginez, jende ugari hasi zen tonbolaren mostradorera hurbiltzen. Eta horrela, batzuetan gehiago eta beste batzuetan gutxiago, herritarren joan-etorria etengabekoa izan zen.

...eta kitto! Euskara Elkartek antolatzen duen ekimen jendetsuenetakoa da tonbola. Diru-iturria da euskara elkar-tearentzat, eta herritar askok eta askok tonbolako opariak besapean edo motxiletan gordeta hartzen dute etxerako bidea Arrate egunean. Aurten ere ehundaka boleto saldu eta milaka sari banatu ditugu. Esan beharra dugu, gainera, inoiz baino babes handiagoa jaso duela elkarteak, inoiz baino establezimendu, elkarte eta enpresa gehiagok eman baitituzte opariak.

MILA ESKER aurten ere Arrate egunean euskarari eman diozuen babesagatik, bai opari mordo hori osatzen lagundu diguzuenoi eta baita boletoak erostera hurbildu zinetenoi ere. Dakizuenez, gure herrian euskararen alde lanean jarraitzeko erabiliko du elkarteak bertatik jasotakoa.

Ez dago herritarren berotasuna bezalakorik!!!



LAGUNTZAILEAK

- +QWAPOS TXAKUR-ILEAPAINDEGIA
- AITZIBER BADIOLA



- AKARA TABERNA
- ALBERT TABERNA
- AMAÑAKO JAIK
- ANTIXON GOZOTEGIA
- ARATATTO
- ARREGI DOMINGUEZ ARRAINDEGIA
- ARTOLA JATETXEA
- ASKASIBAR KIROLDEGIA
- ATHLETIC CLUB FUNDAZIOA
- AZITAIN GASOLINDEGIA
- AZPIRI JOSTUNDEGIA
- BACOLEKU EGO-GAIN
- BACOLEKU URKIZU
- BAISI TABERNA
- BALKOI TABERNA
- BALI GIMNASIOA
- BASO BIZIAK
- BEHEKO TOKIA URKIZU



- BOLINTXO OKINDEGIA



- BORDA TABERNA
- BULEBÚ JATETXEA
- BURBUJAS Y MAS LURRINDENDA
- CAPI ESTETIKA
- CHIC ESTILISTAS
- CHIDO JATETXEA
- CLOSET JANTZIDENDA
- COMERCIAL ZABALA
- CORRAL JOSTUNDEGIA
- COVIRAN
- DENETIK
- DEPOR TABERNA
- DEPOR ELKARTEA
- DIRDAL BITXITEGIA
- DITARE MERTZERIA
- EGUREN ELEKTRODOMESTIKOAK
- EIBAR IGERIXAN
- EIBAR MERKATARITZA GUNE IREKIA
- EIBAR ESKUBALOIA
- EIBAR RUGBY TALDEA
- EIBAR SASOIAN ONGIZATE ZENTROA
- EIBARBUS AUTOBUSAK
- EIBARKO TXIRRINDULARI ELKARTEA
- EIBARKO UDALA KULTURA
- EL CANTON DE LA AVENIDA



- ELGOKAR AUTO GARBIKETAK



- ELITE OFICINAS
- ELORTZA BOTIKA

- EMANKOR TALDEA ERAIKUNTZAK



- EROSKI EIBAR HIPERMERKATUA
- ESKOZIA LA BRAVA
- EXCLUSIVAS JAVI



- GARBIBOX AUTO GARBIKETAK
- GERRITEK INFORMATIKA
- GIGIL BITXIAK



- GOIKO LUZ
- GRATZINA JANTZIDENDA
- GUBY JANTZIDENDA
- GURE ESKU DAGO
- GURIDI TABERNA
- HARTARA ARTISAU OSAGARRIAK



- HELMET HOUSE
- HIRUROK ASTELENA GASTROBAR
- IBARKURUTZE FRUTADENDA
- IBONE ESTETIKA



- IDOIA BERGARETXE ESTETIKA
- IKUSI EIBAR JANTZIDENDA
- INDATEAM
- INDUSTRIAS MAIL
- INDUSTRIAS ROSI
- IPAR SURF SKATE ESKOLA
- IREI ESTETIKA
- IRRITSA JANTZIDENDA



- ITXESI BELARDENDA
- IZADI LORADENDA
- IZANE DEKORAZIOA
- JAUREGI ETXERAKO TRESNERIA
- JAZ ZUBIAURRE
- JERONIMO JOSTAILUDENDA



- JORGE VEGA S.L. IGELTSERITZA
- K2 BITXIAK ETA ESKULANAK
- KAMALA YOGA
- KANTOI GASOLINDEGIA

- KAXA



- KENKO OSASUN ETA ONGIZATEA
- KERALA ESTETIKA
- KILI-KLIK ARGAZKILARITZA



- KIÑU BURDINDEGIA
- KIA NAIA CAR
- KLAUS DEKORAZIOA
- KOKEIN TALDEA
- KOMEDIA FEST
- KONTENT TABERNA
- KOPINA JANTZIDENDA
- KOSKOR TABERNA
- KULTU TABERNA
- LABORAL KUTXA
- LAHIDALGA ZAPATADENDA
- LAKETT ESTETIKA
- LANDARE BELLEZA SALUDABLE
- LEDER POLTZO ETA OSAGARRIAK
- LOLA'S JANTZIDENDA
- LUSAI JATETXEA
- MARSÍ LORADENDA
- MOAPICS
- MUGIKA HARATEGIA
- NHAREA MASAJEAK
- NEURE DEKORAZIOA
- NO COMMENT JANTZIDENDA
- NUVOLA JATETXEA
- OBERENA HARATEGIA

- ORBELA TABERNA



- ORIGINAL KOMUNIKAZIO GRAFIKOA



- OTEGI HARATEGIA URKIZU
- OTEGI HARATEGIA SOSTOATARREN
- PARRIAUNDI OKINDEGIA
- PISSA ZAPATADENDA
- PUBLIRESA PUBLIZITATEA
- PIRRITX ETA PORROTIX
- RESIDENCE COFFE-BAR
- S.D. EIBAR FUNDAZIOA
- SAN ANDRES GOZOTEGIA
- SHEIKO JATETXEA
- SOSOLA BASERRIA
- SU TA GAR TALDEA
- SUBEROA TABERNA
- TACTO ESTETIKA
- TIRO PITXON JATETXEA
- TRINKETE TABERNA
- TUTULO OKINDEGIA
- TWINS JANTZIDENDA
- TXUKUNA MERTZERIA
- TXUTXUFLETAS GOZOKIAK
- UMEA JANTZIDENDA
- UNBE TABERNA
- URDANIBIA JANTZIDENDA
- URKOTRONIK
- USTEKABE TXARANGA
- XABALO
- XARE JANTZIDENDA
- ZAIZOI TABERNA
- ZELAI- BIDE TABERNA
- ZUBI GAIN BERRIA TABERNA





IRAILAK 27

eta kitto! **jaia**

UNTZAGAN (GOIZ ETA ARRATSALDEZ)



- Euskal giro paregabea
- Sagardoa
- Pintxoak
- Eskulanak
- Txalaparta
- Zozketa
- Latuna Bando txaranga...

*** FUNEUSKADI

Funeraria Mugica

TANATORIO EIBAR

*** FUNERARIA MUGICA

Funeraria

TANATORIO EREKATORIO

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951

www.funeuskadi.com

Eibar:

Oraola, 27

Eibarko bulegoa:

Bidebarrieta, 20

Elgoibar:

Xikillon, s/n. SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Ermuako bulegoa:

Marques de Valdespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bibo · Barakaldo · Leloa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao





Eskola Kirola eraberrituta dator denboraldi berrian

Multikirolak programari esker, Eibarko Lehen Hezkuntzako 3. mailatik 6. mailara arteko ikasleek hainbat kirolean aritzeko aukera izan dute azken urteotan. Kirol ezberdinak ezagutzeko, hainbat gaitasun garatzeko eta, jakina, ondo pasatzeko aukera ematen du Eskola Kirolak. Filosofia horri eutsiz, baina herriko haurrek kirolean dituzten beharrak aintzat hartuta, aurtengo aro berria hasiko du Eibarko Eskola Kirolak.

BIDEOA



Herriko ikastetxeetako guraso elkarteek “Multikirolak programari buelta bat emateko beharra” ikusi zuten orain dela urte batzuk eta Erain elkarteak sortu zuten. Bi-hiru urteko lana egin dute herriko umeentzat kirola egiteko proposamen erakargarria, hezitzailea eta anitza garatzen, eta iritsi da proiektu berria martxan jartzeko momentua, Aitor Fernandez Eraineko kideak azaldu digunez, “badakigu hau prozesu handi baten pauso txiki bat bakarrik dela, baina eragin nabarmena izango duen urratsa izango dela uste dugu”.


Denbora behar izan dute proposamen berria prestatzeko, baina argi zuten horretarako beharra zegoela. “Multikirolak programak urte asko zeramatzan berdina izaten, partaidetza asko ari zen jaisten... Beraz, egoera horri buelta eman behar zitzaioela ikusi genuen herriko umeek kirola egiteko baliabide on bat eduki dezaten”, diosku Fernandezek. Horrela, herriko haurren beharrei egokitu kirol eskaintza garatu dutela uste dute: “Berdintasunean oinarrituta, euskaraz eta errespetuz... Kirolaren bitartez hainbat gauza lantzea da helburua”.

Aldaketa hori egiteko, kirol arloan zerbitzu ezberdinak eskaintzen dituen Athlon kooperatiba izan dute bidelagun eta euren eskutik aldatu diote aurpegia Eskola Kirolari. Horrela, Athloneko Oihane Sarasketa eibartarrak hartuko du proiektua koordinatzeko ardura. “Proiektu eta prozesu honen atzean jende asko dago (Erainen herriko zazpi ikastetxeetako guraso elkarteak elkartzen dira, Eibarko Udalak eta Foru Aldundiak laguntzen dute...) eta guk, Athlonek, programaren diseinua egingo dugu, ikastetxeekin eta kirol elkarteekin elkarlana, baita gurasoekin ere...”, azaldu digu Sarasketak.

Fernandezek esandakoa berresten du koordinatzaileak: “Urtetik urtera aldatzen joango den proiektua izango da”, hau da, aldaketak ez dira aurtengo berritasunetara mugatuko. Hori bai, gauza bat lagatzen du argi: “Haurrak erdigunean jarriko ditugu eta denontzat izango den Eskola Kirola eskainiko dugu”.

Hainbat berritasun

Berritasunei dagokienez, zera esan digu koordinatzaileak: “Mami garrantzitsuen aste ba-



Erain elkarteko Aitor Fernandez eta Athlon kooperatibako Oihane Sarasketa. EKHIBELAR

rruko saioetan egongo da eta asteburuetan, berritasun bezala, topaketak egingo ditugu. Topaketetan haurra erdigunean jarriko da eta denontzako espazioa sortu nahi dugu, ume guztiak gustora egongo diren espazioa, eta txoko ezberdinetan banatuko ditugu. Partiduak-eta ere egingo dira, baina lehia kutsua alde batera lagata. Horrek ez du esan nahi lehiarik egongo ez denik, baina hori ez da erdigunean egongo”.

Ikasturte honetan kirol berriak sartuko dira eta, horrela, 15 kirol izango dira guztira. Kirol berrien artean, adibidez, orientinga edo orientazioa dago (natura eta mendiarekin zerikusia duena). Horrez gain, Eskola Kiroleko umeek herrian antolatzen diren ekintzetan hartuko dute parte: Asier Cuevas lasterketan umeentzako proba egongo da, Zumbatoian egongo dira... “Eskola Kirola herrira zabaldu nahi dugu, bertan egiten duguna erakusteko”, diosku Fernandezek eta, era berean, umeek herrian egiten diren kirol-jardunaldiak gertutik ezagutu ahal izango dituzte.

Beste berritasun bat izango da ume guztiek kirol guztiak egingo dituztela. “Beste urte batzuetan aukeraketa egin behar zen, baina

>>> Herriko ikastetxeetako gurasoen elkarteek bultzatuta eta Athlon kooperatibarekin elkarlanean, Eskola Kirolari aurpegia aldatu diote hainbat berritasun txertatuz

orain kirol guztiak egiteko aukera edukiko dute. Gainera, kirol guztiek espazio berdina izango dute programan, topaketa bana eskainiz programa guztian zehar”, azaldu digu Sarasketak. “Hala ere, badaude salbuespenak. Adibidez, waterpoloa 5. eta 6. mailan landuko da bakarrik eta, aste barruan ezingo garenez igerilekura joan, bi asteburutan landuko da; irristaketan ere bi saio egingo dira, kirolaz gozatzeko gutxienez bi saio egitea aproposa zela erabaki zelako; eta atletismoan ere, kirol-modalitate asko dituenek, bi asteburutan egingo dira saioak modalitate guztiez gozatu ahal izateko”.



Guztira 15 kirol ezberdin egiteko aukera izango dute Eskola Kiroleko parte-hartzaileek. ATHLON

Izen-ematea eta aurkezpen jaia

Eskola Kirolaren denboraldia urriaren 6an hasiko da (lehen topaketa urriaren 18an izango da) eta 18 astetan arituko dira kirola egiten. Izena emateko epea irailaren 15etik 25era arte egongo da zabalik eta eibarkirola.eus helbidean eman daiteke ‘Izen-ematea’ atalean.

Baina kirolean hasi aurretik, hilaren 19an, 18:00etatik aurrera, aurkezpen jaia egingo dute Errebalen. “Jaiak bi zati edukiko ditu. Batetik, umeentzako kirol-txoko ezberdinak jarriko ditugu jolas ezberdinekin. Eta bestetik, aldi berean, gurasoekin bilera-informatiboa egongo da”, diosku Sarasketak.



ARRATE HOMES

Elbarko zure etxebizitza berriak

SARIA DU!





Orain bakarrik, Arrate Homes-en zure etxebizitza berria eskuratuz gero,

▶ 3.000€-ko

El Corte Inglés-eko opari-bartela emango dizugu

TERMINO OROKOR JARDUKA

Obra berriko etxebizitzak:

Gimnasioa • Gourmet aretoa • Garajea • Trastelekua



900 11 00 22 • neinorhomes.com



Gipuzkoako Binakako Txapelketa Astelenan

Gaur jokatu da Gipuzkoako Binakako Txapelketako lehen jardunaldia Astelena frontoian eskuzko hiru partidurekin: jubenilen etxeko bi bikotek Oiartzungoen aurka jokatu dute 19:00etatik aurrera, eta hirugarren mailakoek Zestoako bikotea izango dute aurkari. Bihar, 09:00etan hasita, paleta gomako hiru partidu jokatu dira Astelenan eta, ondoren, seniorren eskuzkoa Andoaineko bikotearen kontra.



Gartzia-Ruiz familia bikain Zumaiaiko triatloian

Triatloi denboraldia azken txanpan sartu da eta JAZ Eibar Triatloi Taldeko ordezkariak sasoi betean daudela erakutsi zuten Zumaian jokatu zen sprint triatloian, denek lortu baitzuten proba amaitzea.

Aipatzekoa da Ugaitz Gartziaren eta bere ama Cristina Ruizen lana. Gartziak hirugarren amaitu zuen junior mailan eta 19. sailkapen orokorrean (1:03:35); eta Ruiz 16. postuan heldu zen helmugara (1:22:21), V2 kategorian bigarren sailkatuz.

JAZ Triatloi Taldeko beste atletei dagokienez, honako emaitzak lortu zituzten: 72. Ander Telleria Abascal (1:11:35), 87. Roberto Gartzia Herrero (1:12:34), 148. Aitor Fernandez Cepeda (1:17:30), 194. Jesus Sanchez Morente (1:23:53) eta 242. Alberto Agirre Herreria (1:38:28).

Urbat I.K.E. Urkotronik waterpolo taldeak denboraldi berria hasi du

Irailaren 1ean itzuli ziren lanera Urbat I.K.E. Urkotronik waterpoloko taldeak. Erronka handiak dituzte aurretik eta ilusioz ekin diote 2025/26 denboraldiari. "Seniorretako emakume talde sendoa itzuli da", esan digute taldetik.

Urbat, oster, talde nagusien maila handitik harago doan klub bat da eta harrobia ondo zaintzen saiatzen dira, gero talde horietako jokalariek osatuko dituztelako talde nagusiak. Horrela, benjamin eta alebin mailak batzen dituen taldea

aurkeztu du aurtan eta asteburuan jokatu zuen lehen aldiz.

Logroño Hiria Txapelketan izan dira waterpolo jokalariek gazteak eta, aurkari gehienak baino gazteagoak izan arren, maila ona erakutsi zuten hirugarren postuan amaituz.

Talde osatzen dihardute oraindik eta jokalariek berriak batu nahi dituzte. Beraz, probatu nahi izanez gero, Orbeako igerilekuko ateak zabalik egongo dira, 17:00etan, ate irekietako saioak egiteko helburuarekin.

Pello Berrizbeitia Munduko Txapelketarako hautatua

Espainiako Atletismo Federazioak Pello Berrizbeitia sartu du hilaren 27an, Canfrancen (Huesca), jokatu den Trail eta Mountain Running Munduko Txapelketako lehen hautaketan. Eibarko Klub Deportiboko kidea Long Trail proban (82 km) parte hartzeko hautatu dute Jose Angel Fernandez "Canales", Julen Calvo, Manuel Anguita, Claudio Díaz eta Abel Carreterorekin batera.





SD Eibar-en futbol egokituaren taldeak martxan dira

SD Eibar-ek futbol egokituaren denboraldi berriari ekingo dio bihar egingo duten entrenamenduarekin. Aurreko denboraldietan lortutako aurrerapenak sendotzea eta jokalarien garapena bultzatzen jarraitzea dira klubaren helburua, orain arte egindako lana berresteko asmoz.

Aurreko denboraldia oso balorazio positiboarekin itxi zuten, jokalarien kopuruan eta lan-metodologian izandako hazkundera islatuz, eta horrek klubari oinarri sendo baten gainean lan egiteko eta etengabeko hobekuntzarekin aurrera egiteko aukera eman dio.

Lehiaketari dagokionez, PC taldeak (garun-paralisia dutenentzako taldea) berriz irabazi zuen Liga, denboraldi osoan zehar maila

handia erakutsiz. Horretarako, berebizikoa izan zen entrenamendu egituratua eta diziplina anitzeko plangintza. Esan beharra dago, gainera, klubaren lan-ereduak Espainiako Selektzioaren interesarekin piztu duela.

Genuine taldeak (DI taldea edo adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako taldea), bestalde, desgaitasunaren araberako sailkapen-sistema berrira egokitzuz kudeatu zuen jokalaria kopuru handia (30 lizentziekin itxi zuen denboraldia, 28 gizonezko eta 2 emakumezkoekin). Horrela, errendimenduan eta garapen pertsonalean aurrerapenak lortu zituen entrenamendu pertsonalizatuaren, ebaluazio fisikoaren eta elikadura-planen bidezko garapenari esker.

Lehen garaipenaren bila

Bi jardunalditan bi porrot jasan ondoren (Madrid CFF-k 1-0 irabazi zion joan den asteburuan), F Ligan jokatzeko duen SD Eibar taldeak denboraldiko lehen garaipena lortu nahi du domekan, 14:00etan, FC Badalona Women taldearekin aurka ipuruan jokatu duen partiduan.

Hurrengo partidua: Cadiz CF

Astelehenean Andorraren aurka 2-0 irabazita eta denboraldiko lau jardunaldi jokatu ondoren, SD Eibar sailkapenaren 7. postuan da, 7 punturekin. Hurrengo partidua Cadiz CF-ren aurka jokatu du, zapatuan, 16:15ean, Mirandilla Berria zelaian. Gaizka Garitanok zuzentzen du Andaluziako taldea eta Eibarrek baino puntu bat gehiago du.



Futbol Zaletuko liga hasiko da bihar

Bihar goizean emango zaio hasiera futbol zaletuaren 2025/26 denboraldiari. Aurten bederatzi talde arituko dira lehiatzen eta, kopuru bakoitia denez, astero talde batek hartuko du atsedena. Horrela, lehenengo jardunaldian Adahi Etxegi taldeak hartuko du atsedena.

Bihar Garajes Garcia - Limpieza Rueda (09:00etan) eta Malape Taberna - Bergara Pneumatikoak (10:30ean) partidua jokatu dira Unben, eta etzi Baserri - Bar Marem (09:00etan) eta Xania Taberna - Kalaka Buenos Aires (10:30ean).



Euskal Kopa ahaztu eta ilusioz begiratzen dio ligari MEK Eibar Eskubaloiak

Liga hasi aurretik, MEK Eibar Eskubaloiko taldeak Euskal Kopa lehiatzen aritu izan dira eta emaitzaz ez dira eurek espero bezain onak izan. Azken asteburuan, gizonezkoen lehen eta bigarren taldeek eta emakumezkoen talde nagusiak jokatu dute, eta hirurek galdu.

Gizonezkoen lehen taldeak Aménabar Zarautz izan zuen arerio Ipuruan, eta porrot lazgarria jasan zuen: 24-40. Horrela esan dio agur Euskal Kopari eta orain liga hasiko du Fernando Fernandez taldeak. Ilusioz ekingo diote erronka berriari asteburuan, Hondarribian, Aitor Etxaburu eibartarrak zuzentzen duen Ilca-

po Hondarribia Bidasoaren aurka. Emakumezkoen seniorretako taldeak ere porrota jasan zuen Euskal Kopan: 26-23 Urdanetaren aurka. Taldeak hilaren 27ko asteburuan hasiko du liga eta tartean bi partidujokatuko ditu: asteburu honetan Kukullagaren aurka arituko da eta datorren asteburuan Euskal Kopako beste partidu bati egingo dio aurre.

Gizonezkoen bigarren taldeak ere ezin zuen emaitza positiborik atera Euskal Kopako partiduan, 23-30 galdu baitzuen Basauriren aurka. Kadete mutilen taldeak, bestalde, 3. postuan amaitu zuen Elgoibarko Gojko Vucinic torneoan.

Atletismo Eskolari hasiera eman diote

Eibarko Klub Deportiboaren Atletismo Eskolak martitzenean zabaldu zituen ateak eta iraila libre lagako dute nahi duenak kirola proba dezan. Entrenamenduak Unben egiten dituzte Kepa Markezen ardurapean eta klubeko beste hainbat atleten eta entrenatzaileraren laguntzarekin.

Denboraldian zehar Gipuzkoan jokatzen diren krosetara joango dira, eta baita Anoetako belodromoan eta Unben egiten diren probetara ere. Eta, jakina, baita Gipuzkoako Txapelketara ere.

Informazio gehiago: atletismoa@deporeibar.com helbidean.

Kirola izango da protagonista Arraten

Kofradia eta Baserritar Jubilatuen Eguna izango da domeka, irailak 14, eta hainbat ekintzen artean, kirolak protagonismo berezia izango du Simon Aldazabal lasterketaren 30. edizioarekin eta Kaelo memorialaren pilota partidekin.

Simon Aldazabal lasterketa Eibarko Klub Deportiboaren partetik irtengo da, 10:30ean, eta parte-hartzaileek Arratera igo beharko dute Orbeko bidetik. Izen-ematea doakoa izango da eta bertan eman daiteke, lasterketa hasi aurretik.

Kaelo memorialari dagokionez, kadete eta jubenil mailako esku pilotako partidua jokatuko dira Arrateko frontoian 12:00etatik aurrera.



Ate irekiak Ipar-en

Ipar-eko skatepark estaliko (Matsaria 34-1C) ateak herritar guztientzat zabalduko dituzte bihar skatean, rollerrean eta surfskatean aritzeko. Doako jardunaldia izango bada ere, izena eman beharko da aurretik 679 513 592 telefonora deituta.



Hasi da Jabetze Eskolaren ikastaroetarako izen-ematea

Udazkeneko Jabetze Eskolako ikastaro berrietan aurrematrikula egiteko epea zabalik dago. Izen-ematea Internet bidez, Udaleko eta Andretxeko webguneetan egin daiteke edo, bestela, aurrez aurre, Andretxean. Eibarko Jabetze Eskolak ikastaroen eskaintza zabala prestatu du udazken honetarako: Zoru pelbikoa indartzeko tailerra: gure gorputzak ahalduntzen; Emakumeak inprobisatzen; Diafreoa: tentsio muskularrak askatuz eta gure bizipenak integratuz; Autodefentsa Feminista tailerra; Mugimendu adierazkorra lantzeko tailerra: gorputz-adimena, emozioak eta ahalduntzea; eta Gure inguruko sendabelarrak ezagutu eta erabiltzen hasteko oinarritzko ikastaroa. Aurrematrikulak irailaren 23ra egin ahal izango dira, eta informazio guztia aipatutako bi webgune horietan eskuragarri dago, Andretxearen 2025eko udazkeneko programazioaren liburuxkan.



Irailaren 19an zabalduko da lehen erakusketa Portalean

“Eskala eta zatiak” izenburuko erakusketa zabalduko dute irailaren 19an Portalean. Hilabetez, urriaren 19ra bitartean egongo da ikusgai, ohiko ordutegian.



Elena Barrena Osorori emango zaio Ondare Saria, hil osteko aintzatespen gisa

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuak erabaki du Elena Barrena Osoro historialari eibartarrari 2025eko Ondare Saria hil ondoren ematea Gipuzkoako eta Euskal Herriko historiaren ikerketa eta zabalkundean egindako lan bikainagatik.

Historialaria, ikertzailea eta unibertsitateko irakaslea, Elena Barrenak (Eibar, 1953 – 2024) irakaskuntzara eta ikerkuntzara bideratu zuen bere ibilbide profesionala, arreta berezia eskainiz Erdi Aroko Gipuzkoari, hiribilduen jatorriari eta komunikazio sare historikoei. Bere ikerketak ezinbesteko erreferentzia dira lurraldearen konfigurazio historikoa eta soziala ulertzeko, eta horien artean nabarmentzekoa da bere doktore-tesia *Las transformaciones en la organización social de un territorio cantábrico durante la época medieval: la reforma histórica de Guipúzcoa*.

Goizane Alvarez Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura diputatuak azpimarratu du Elena Barrenaren ikerketak “ezinbesteko erreferentzia” direla lurraldearen konfigurazio historiko eta soziala ulertzeko. Bere hitzetan, “Elena Barrena gure tradizio akademiko eta kulturalaren onena da: emakume aitzindaria, zorrotza eta eskuzabala, gure lurraldearen historia ikertzen eta irakasten aritu zena”.

Eta Jon Iraola alkateak bat egin nahi izan du Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura diputatuak esandakoa rekin. Adierazi duenez, Ondare 2025 Saria emanaz “merazitako aitortza” egin diote Barrenari: “Elenak hamarkadak eman zituen Gipuzkoaren eta Euskal Herriaren iragana aztertzen, begirada zorrotz, grinatsu eta konprometituarekin, eta bere ikerketak gure ondare kulturalaren ezinbesteko parte dira dagoeneko”.



E.M.G.E Fest jaialdia egingo da bihar Legarren

Eibarko Musikari Gazteen Elkartearen eskutik, bihar hainbat talderen kontzertuak egingo dira Legarren, 18:30etik 23:00etara. Azken urteotan egindakoaren bidetik, oraingoan ere Eibarko eta inguruko hainbat talde arituko dira: Kvalvika (Musika elektronikoa / Eibar), Haram (Punk / Bergara), Rythmachin (Funk, Mestizajea, Fusioa / Eibar) eta Sombras del Mal (Trash Metal / Eibar). Musika jaialdia dohainik izango da, eta Legarren musika taldeek entseguetarako erabiltzen dituzten lokaletan, orain Walter Tuzzeo izena duen sormen zentroan, izango dira.



Magiarekin hasiko du ikasturtea AEK euskaltegiak

Irailaren 17an, datorren eguaztenean, emango diote hasiera ikasturte berriari Eibarko AEK euskaltegikoek eta, ganoraz hasteko, herritar guztiei zabalik Untzagan egingo den ekintza antolatu dute. Arratsaldeko 19:00etan hasiko da ikasturte berriaren aurkezpena eta “Euskara eroso ikasi eta bizi Eibarren” goiburuari jarraituz, magia ikuskizuna egingo du Imanol Ituiñok. Euskaltegiko arduradunek esan dutenez, “pintxoekin merienda eta photocalla, nork bere sare sozialetara argazkia igotzeko” ere egingo dira.



Elisabet Egurenen margolan erakusketa Untzagan

Domekan, irailaren 14an zabalduko dute Untzaga gizarte zentroan denboraldi berriko lehen erakusketa. Eguerdian inauguratuko duten Elisabet Eguren eibartarraren pintura erakusketa irailaren 21era arte egongo da ikusteko moduan, bertan dagoen erabilera anitza erakutsi, eta ordutegi honetan zabalduko dute: asteburuetan, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara; eta astelehenetik barixakura, berriz, 19:00etatik 21:00etara.

Kontsumo arduratsuari buruzko kartelak hilaren 28ra arte aurkeztu daitezke lehiaketara

“Kontsumoa kontzientzia-ekin kontzientzia kontsumoan” kartel lehiaketa antolatu dute Pobreziaren Aurkako Borrokan Ingurumen Jasangarritasunaren aldeko Sareak, Egoaiziak eta Biolurrek, Debemenen, Eibarko Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin. Lehiaketaren bitartez bi kartel aukeratu nahi dituzte, agroekologian eta kontsumo arduratsuan oinarritutako azoka eta ekitaldiak iragartzeko. Bi maila bereiziko dituzte: gazteen kategorian (11-15 urte), 60 eurotan baloratutako saria emango dute; eta helduen kategorian (>16 urte), berriz, 150 eurotan baloratutakoa. Irailaren 8an hasi zen lanak aurkezteko epea, eta irailaren 28ra arte egongo da horretarako aukera, lehiaketaegoaizia@gmail.com helbidera bidalita.





Aurkitu 10 DESBERDINTASUNAK



LABIRINTOA

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

1				8	5		4
			9	6			
	6			3		8	7
	7	8			3		
2							9
			7			2	8
3		4		8			7
			3		5		
8		9	1				5

1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9

soluzioa

S
U
D
O
K
U

1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9

soluzioa

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

1	2		9	8			5	
	5	6		1				7
			6					
3								9
	6	7					5	8
	9							6
					1			
9				6		4	7	
	8			4	9		3	2

Irailak 12/18

ZAPATUA 13

JAIALDIA

16:00 Mika Fest, Kpop eta Hego Koreako kulturara gerturatzen jaialdia: dantza, sukaldaritza tradizionala... Doan. Coliseo antzokia eta Errebal Plazia.



MUSIKA

18:30/23:00 E.M.G.E. Fest. Kontzertuak, Eibarko Musikari Gazteen Elkartearen eskutik: Kvalvika (Musika elektronikoa / Eibar), Haram (Punk / Bergara), Rythmachin (Funk, Mestizajea, Fusioa / Eibar) eta Sombras del Mal (Trash Metal / Eibar). Doan. Legarre (Walter Tuzzeo sormen zentroa).



UMOREZKO BAKARRIZKETA

20:30/21:30 Komedia Fest: "Camino al Éxito", Julen Axpe-ren eskutik. 19 euro. Uni Eibar-Ermua (antzokia).



DOMEKA 14

KOFRADIA EGUNA

10:30 Simon Aldazabal XXX. Antxitxiketaldia. Eibarko Klub Deportibotik irten eta Arrateraino (Orbeo bidetik).

11:00 Meza Nagusia, Nerea Elustondo eta Millan Telleria bertsolariekin. Ondoren prozesioa, Usartza Txistulari Bandak lagunduta.

12:00 Paella lehiaketa.

12:00 Kaelo Memoriala. Pilota partiduak, kadete eta jubenil mailetan. Arrateko frontoia.

14:00 Paella lehiaketaren sari-banaketa.

17:30 Idi gazteen erakustaldia, hiru bikoteren parte-hartzearekin. Sarrera doan. Arrate.



BISITA GIDATUA

11:00/14:00 Gerra Zibileko gerra-frontearen ibilbide historikoa. Gaztelaraz. Gerra Zibileko Interpretazio Zentroa (Arrate).



ASTELEHENA 15

MUGIKORTASUNAREN ASTEA

10:30/14:00 "Jarri zure bizikleta prest MUGIrekin". Antolatzaileak: Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun, Turismo eta Lurralde Antolaketaren Departamentua eta Jasangarritasunaren Departamentua. Untzaga.



EGUAZTENA 17

AGURTZEN

18:00/20:00 Aurretiazko borondateei buruzko informazio-zerbitzua, Ikasten-en eskutik. Untzaga gizarte etxea (Arrate aretoa).

MERIENDA MAGIKOA

19:00 Ikasturte hasierako merienda magikoa, Imanol Ituiñorekin: ikuskizuna, merienda, photocalla... Eibarko AEK euskaltegiak antolatuta. Doan. Untzaga.

ERAKUSKETAK

Irailaren 14tik 21era

- **Eli Egurenen margolanak.** (Untzaga gizarte zentroa).

Eskualdeko Agenda

ERMUA

XX. Folkez Blai jaialdia (Orbe Kardinalaren plazan)

12an (BARIXAKUA)

19:00 Ache Pa Ti

19:45 Harribitxi

21:00 Milladoiro

13an (ZAPATUA)

13:00 Antía Caaveiro, Antón Lago & Xosé Liz

18:30 Xara

19:45 Matazúa

21:00 Golkonda (XIX. edizioko irabazleak)

14an (DOMEKA)

12:30 Bentazaharreko mutiko alaiak (kalejira)

18:30 Entós

19:45 Gorrondatxe

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- 14an: 20:00
- 15ean: 19:30

“Sin cobertura”
KOMEDIA



2025/Espainia/95'
Zuzendaria: Mar Olid
Aktoreak: Alejandra Jimenez,
Ernesto Sevilla, Luna Fulgencio
Erdi Aroa/Bidaia

2 ARETOA

- 13an: 22:30
- 14an: 17:00, 20:00
- 15ean: 19:30

“Amor en cuatro letras”
DRAMA



2024/Erresuma Batua/125'
Zuzendaria: Polly Steele
Aktoreak: Pierce Brosnan,
Helena Bonham, Gabriel Byrne
Amodiozko drama

ANTZOKIA

- 14an: 17:00

“Los futbolísimos 2. El misterio del tesoro pirata”
UMEENTZAKO



2025/Espainia/95'
Zuzendaria: M. A Lamata
Aktoreak: Nicolas Rodicio
Joaquín Reyes, Carmen Ruiz
Abenturak/Komedia/Kirola

ANTZOKIA

- 13an: 22:30 (1. Ar)
- 14an: 17:00 (1. Ar) 20:00
- 15en: 19:30

“Expediente Warren. El último rito”
TERROREA



2025/AEB/135'
Zuzendaria: Michael Chaves
Aktoreak: Patrick Wilson, Vera
Farmiga, Mia Tomlinson
Thrillerra/80. hamarkada



Luis Jesus Ramos Aizpurua

8. URTEURRENA
2017/09/14

“Beti zurekin,
beti gurekin.
MAITE ZAITUGU”

- ETXEKUAK -





Jose Ignacio Arizmendiarieta Begoña

2025/09/08

“Juan zara, baina beti
izango zaitugu goguan”

- JONEN KUADRILLA -



943 20 67 76

aldizkaria@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzen ditugu.



Zorionak **EKHI!**
8 urte potolo! Segi
oin arte bezain
alai. Musu haundi
bat Kira eta
famelixaren partez.



Zorionak **MADDI!**
Abuztuan 6 urte
bete zenduaz. Musu
pilla bat
eta besarkada
erraldoia etxekoen
partez.



Zorionak **IKER,**
Gaur 13 urte!
Ondo ospatu!
Musu haundi bat
famelixa eta,
batez be, Koldoren
partez.



Zorionak **KATTALIN!**
Bixar, hilak 13, bi
urte beteko dozuz
eta. Besarkada eta
patxuak Elorrixoko
eta Eibarko famili-
xen partez.



Zorionak **MIREN!**
Abuztuan 8 urte
bete zenduaz. Besarkada estu bat
famelixa guztiaren
partetik.



Zorionak **NAIA!**
Atzo, irailak
11, gure etxeko
printzesak 7 urte
bete zittuan. Asko
maite zaitugu.



Zorionak **JUNE!**
Abuztuaren 26an
13 urte bete
zenduaz eta!
Musu haundi
famelixa eta, batez
be, Elenen partez.



Zorionak **JON** (5 urte irailaren
8xan) eta **JULE** (2 urte irailaren
13an). Musu haundi bat
famelixa guztiaren partez.



**Rufina
Alvarez Peciña**

15. URTEURRENA
2010/09/13

Irribarre horrek kutsa
gaitzan, horrela dena
errazagoa izango da.
“...alegantzia baino ez
dago hoberik”

- ETXEOAK -



**Ramon
Hernaltes Treviño**

8. URTEURRENA
2017/08/05

Zortzi urte pasatu
badira ere,
gure bihotzetan
jarraitzen duzu

- ZURE FAMILIA -





943 20 67 76

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2.1. Salgai

3.1. Salgai

3.2. Errentan

4.1. Lan bila
4.2. Langile bila

5.1. Eskaerak
5.2. Eskaintzak

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1.1. Salgai

- Baserria salgai Itziarko Endoia auzoan. 330 m². Oso ondo komunikatuta. Bista paregabeak. 632252602.

2.1. Salgai

- Honda cb600f (Hornet) moto-
rra salgai. 600ekoa den arren
35 kwra mugatuta dago.
1999koa, 69.000km. Egoera
ezinhobean eta ITV egunean.
2.000 euro. 688857786. Jon.

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Aste-buruetan. Ziurtagiriarekin.. 642757640 (Angela).
- Neska eskaintzen da pertsonekin, tabernan edo garbiketalan egiteko (titulazioarekin). 6432701852
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko orduka. Titulazioarekin eta esperientziarekin. 667070292
- Emakumea eskaintzen da garbiketak egiteko, nagusiak zaintzeko (baita ospitalean ere). Interna. Ziurtagiriarekin. 632768653
- Emakume euskalduna eskaintzen da, arratsalde, umeak edo nagusiak zaintzeko. 665733162.
- Emakumea eskaintzen da nagusien zaintza lanetarako, esperientzia eta soziosanitario ziurtagiriarekin. 638 41 31 58
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 672827386.
-

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin). Erreferentziak. 613287661.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 631418130. Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 602040399. Veronica.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Interna. 687408348.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. 672965658

4.2. Langile bila

- Euskaraz hitz egiten duen emakumea hartuko genuke 2025-26 ikasturterako, goizeetan alabak prestatu eta ikastolara eramateko. 667942392.
- Emakumea behar da nagusia zaintzeko Donostian. Interna. Astelehenetik zapatu eguerdira. Abuztuan hasteko. 640795297.
- Pertsona behar da irailetik aurrerera goizetik bi haurrei prestatzen lagundu eta eskolara eramateko. Euskaraz jakitea baloratuko da. ihintzasa@yahoo.es
- Emakumea hartuko genuke nagusia zaintzeko. Interna. 688611124. Raquel.
- Eibarko erdiguneko tabarnan eskarmentudun zerbitzaria hartuko genuke. 943558728.

5.2. Eskaintzak

- Gitarra, baxu elektrikoa eta ukelele klaseak. Armonia eta konposizioa. Musikene-ko irakasle tituluduna. basseak@yahoo.es 652217737.

- Neska eskaintzen da ingeles klaseak emateko. Sei urteko ikasketekin. Umeak ere zainduko lituzke. 615701749.
- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitateko prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6.1. salgai

- Butaka-relax elektrikoa salgai.
Nahiko berria, marroia, antez-
koa, ukitu oso leuna. Oso ego-
kia mugikortasuna mugatua
dutenentzat. 250 euro. 666 982
621 iarriand@hotmail.com

6.2. Eman

- Urtebeteko txakur emea emango genuke, ezin dugulako zaindu. Spaniel britainiar nahastutako arrazakoa. Txertatuta eta txiparekin. 686540051.
- Bi urteko txakurra oparitzen dut. Mastin arrazakoa.. 696655908.

6.4. Bestelakoak

- Baserria erosiko nuke Eibarren edo inguruan. 688 642 761. Asier.

gremioen gida



ANTENAK

Ego Gain, 2 - Bac

Tfnoa. 943 12 73 50
www.trinmer.com



**TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK**

ELEKTRIZITATEA

THELECER
TELEKOMUNIKAZIOAN
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
24 orduko
urgentziak
610 532 922 www.thelecer.com

KRISTALAK

ACHA Kristaldegia
J.A. GISASOLA, 4 - ac
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
info@cristaleriaacha.com eta faxa: 943 203 903

AROTZAK



aluminiozko eta PVC-ko
AROTZEGIA

balta toloak, gortinak, estoreak etabar

Txesta, 30 - 1. eta beheak
Tfnoa: 943 12 13 67 www.ulmar.net

IGELTSEROAK

Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza
irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.
Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobeaz
goza dezazun
Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

PINTURAK

IÑAKI
pinturak eta lurrak
Tel. 647 902 208
Bideburrieta, 21 - beheak

PLAGEN AURKA

PLAGANATURA
PLAGEN AURKA SAIO ZERBITZUA
www.plaganatura.com
943 696 700
ELEGIOAK



943-206776

EIBARKO UDAL EUSKALTEGIA

Irailaren 26ra arte MATRIKULA ZABALIK

2025-26 IKASTURTEA

Udal Euskaltegiak
Publikoak, irekiak, guztiarentzat

EUSKARA

ERRITMO BIZIAN



VIVE EL RITMO DEL EUSKERA

MATRIKULA EPEA ZABALIK
PLAZO DE MATRICULACIÓN ABIERTO 2025-2026

UDAL EUSKALTEGIAK
Udal Euskaltegiak

HABER

- **Aurrez aurreko ikastaroak.** Astelehenetik ostegunera. On-line jarraitzeko aukera.
- **Autoikaskuntza.** Bakarkako lana, tutoretzak eta mintzasaioak.
- **HABE, IVAP eta Osakidetzako** azterketak prestatzeko aukera.
- **A1/A2 mailetan** titulu ofiziala Euskaltegian bertan.
- **B1/B2/C1 eta C2 mailetan** HABEren deialdi itxira joateko aukera.

DESKONTUAK: % 20, % 50, % 75, ... KONTSULTATU

**16 urtetik gorakoentzat
ORDUTEGI ZABALA**



Bista Eder, 10 - PORTALEA

euskaltegia@eibar.eus



943 700 912



688 698 566

